



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2020ko hirugarren hiruhilekoa



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Ziurgabetasunak "normaltasunera itzultzea" baldintzatzen du.....	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	7
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak	11
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	17
Eranskina – Aurkibideak	23
Eranskina – Metodologia	27
Fitxa Teknikoa	30

ZIURGABETASUNAK "NORMALTASUNERA ITZULTZEA" BALDINTZATZEN DU

- covid-19aren hedapenaren eta eraginaren azkenaldiko bilakaera
- egoera arindu ezean, konfiantzarik eza gailenduko da
- erregistratutako geldialdi ekonomikoaren sakontasuna baieztatu da




a covid-19aren hedapenaren eta eraginaren azkenaldiko bilakaera

Covid-19a atzemateko egindako proben gaineko emaitza positiboaren tasaren bilakaerak erakusten du Espainiak (% 10,8) emaitza okerragoak erregistratu dituela Frantziak (% 5,3), Erresuma Batuak (% 1,3) edo Alemaniak (% 0,8) baino. Hala, konfinamendu garaian lortutako baretasuna galdu du Espainiak.

Argi geratu da uztailean hasitako deskonfinamendu-aldian eta “normalatasunerako itzuleran” zehar covid-19aren kutsatzeak asko hedatu direla, batez ere, Espainian. Datu horiek agerian utzi dute pandemiaren eragina handia izan dela, eta, ondorioz, ziurgabetasun soziala sortu da.

Oharra: pandemia amaitzen denean neurtu behar da haren inpaktua, kutsatze-erritmoa ez baita berdina herrialde guztietan, eta guztiak ez baitira kutsatzeak murrizteko ahalegin bera egiten ari. Gainera, oraindik sortzeko dago hedapena eta inpaktua modu homogeneoan neurtuko dituen sistema bat.

Emaitza positiboak egindako testen gainean, ratioa (%)



b | egoera arindu ezean, konfiantzarik eza gailenduko da

Udak nolabaiteko “normaltasunerako itzulera” ekarri du, covid-19aren kutsatzeen hedapen zabalaren ondorioz itzulera hori zaila izaten ari den arren.

Autonomia erkidego guztiak OMEk gomendatutako % 5eko (covid-19aren proba positiboan tasa) mugatik oso gora daude, egoera zailean.

Ziurgabetasun-egoera honek EAEko familien konfiantza kaltetu du modu bateratuan eta erabakigarrian. Konfiantza mailaren balioak ezkorak dira (-30), 2008ko krisialdian erregistratutako balioen antzekoak (IV. hiruhilekoan, -29 puntu).

Osasun-krisia arintzearen menpe dago kontsumitzaileek konfiantza berreskuratzea, ondoren jarduera ekonomikoa eta enplegua suspertzeko. Egoera hobetzen bada, Espainiaren eta autonomia-erkidegoen irudia hobetu egingo da. Egun, covid-19aren hedapenaren goiko postuetan daude Europan.

Emaitza positiboak egindako testetan gainean (%)

09/01 eta 09/07 artean

Madril	19,7
Aragoi	16,9
Gaztela-Mantxa	16,9
Murtzia	14,3
Balearrak	13,6
Andaluzia	11,1
Gazt-Leon	11,0
Kantabria	10,0
Kanariak	9,9
Valentziako Erk.	9,8
Nafarroa	8,7
Extremadura	8,6
Katalunia	8,4
Euskadi	8,1
Errioxa	7,4
Galizia	6,7
Asturias	2,6

Iturria: Osasun-Alerta eta -Larrialdien Koordinazio Zentroa (2020/09/11)

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE. 2008 krisia eta 2020 krisia

	2008ko krisia				covid-19 krisia	
	III-08	IV-08	I-09	II-09	II-20	III-20
Kontsumitzailearen konfiantza adierazlea	-25	-29	-30	-33	-24	-30



Iturria: FCVN (2012 arte) eta Laboral Kutxa

c | erregistratutako geldialdi ekonomikoaren sakontasuna baieztatu da



Covid-19aren inpaktuaren ondorioz hasitako krisiaren garrantzia agerikoa da:

- EAEn langabezian dauden pertsonen gorakada: abuztuan (146.450 pertsona) otsailean (covid-19aren aurretik) baino 29.211 pertsona gehiago zeuden langabezian.
- Hazkunde ekonomikoak (BPG) behera egin du bigarren hiruhilekoan EAEn (-% 16,4) eta Espainian (-% 18,5). 2008ko krisialdian baino beherakada handiagoa izan da.

Erregistratutako langabezia. EAE.



BPG (hiruhileko arteko aldakuntza tasa). Espainia eta EAE



EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA


- EAEko familien konfiantzak behera egiten jarraitzen du
- inguruko familiekin partekatutako ezkortasuna
- mesfidantza txikiagoa Frantziako, Alemaniako eta Erresuma Batuko familietan



1 EAEko familien konfiantzak behera egiten jarraitzen du

2020ko hirugarren hiruhilekoan gora egin du EAEko familien mesfidantzak (-30; 6 puntu gutxiago). Azken sei urteetako baliorik baxuena da, 2008ko krisialdiaren ondorengo susperraldi-garaiko balio bera.

2008ko hirugarren hiruhilekoaren (-25) eta 2009ko bigarren hiruhilekoaren (-33) artekoarekin aldera daiteke egungo ezkortasuna. Aurreko krisialdiaren ibilbidea ikusita, litekeena da 2020ko laugarren hiruhilekoan EAEko familien konfiantza maila balio negatiboetan mantentzea, normaltasun ekonomikoa eta soziala berreskuratuko direla erakusten duten zantzu argiak izan arte.




2 | inguruko familiekin partekatutako ezkortasuna

Pandemia honen hasieratik, familiek konfiantza galdu dute: EB-27n eta Estatuan ezkorrak dira (-16 eta -27), eta bigarren eta hirugarren hiruhilekoan antzeko balioak izan dira.

EBko familien hileroko balorazioa (uztaila eta abuztua) ez da apenas aldatu, baina Espainian behera egin du (-26 eta -29), kutsatzeen gorakadaren eta jarduera batzuen atzerakada handiaren ondorioz (bereziki, turismoa).

EAEko emaitza (-30, hirugarren hiruhilekoan) Estatuan erregistratutakoaren antzekoa da (-29, abuztuan), bi kontsultak egiteko unean.



1. Oharra: Eurostatek kontsumitzailearen konfiantzari buruzko serie osoa berrikusi du. EB-28ko I. eta II: hiruhilekoetako datua EB-27koa da Erresuma Batutik irten ondoren

2. II. Lauhilabeteko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Apirila-Maiatzeko batez bestekoa.

3. EAEren datua abuztuaren bigarren hamabostaldiaren artean egindako kontsultari dagokio)


3 | mesfidantza txikiagoa Frantziako, Alemaniako eta Erresuma Batuko familietan

Frantziako (-12), Alemaniako (-9) eta Erresuma Batuko (-17) familien konfiantza mailak negatiboa izaten jarraitzen du (ezkortasuna), baina apur bat hobetu da bigarren hiruhilekoarekin alderatuta (+4, +5 eta +5, hurrenez hurren).

Urteko hirugarren hiruhilekoan, EAEko familiek agertu dute ezkortasun-mailarik altuena; ezkortasun horrek gora egin du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-6).

Kontuan izatekoa: Frantziak, Alemaniak eta Erresuma Batuak covid-19 gaitzaren kasu positiboaren ratio txikiagoak izan dituzte Espainiak baino (eta EAEk baino).

————— Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak —————



1. Eurostatek kontsumitzailearen konfiantzari buruzko serie osoa berrikusi du. EB-28ko I. eta II: hiruhilekoetako datua EB-27koa da Erresuma Batutik irten ondoren

2. II. Lauhilabeteko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Apirila-Maiatzeko batez bestekoa.

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK


- ekonomia orokorraren bilakaeraren gaineko ezkortasunak gora egin du
- enpleguaren gaineko igurikimenak are gehiago egin du okerrera eta behea jo du
- etxeko ekonomiaren gaineko igurikimena gutxiago okertu da
- familiako aurrezki-igurikimena mantendu egin da
- “kontrolik eza”-ren pertzepzioak hondoratu egin du igurikimena

4 | ekonomia orokorraren bilakaeraren gaineko ezkortasunak gora egin du

Covid-19aren krisiak bete-betean eragin dio jarduera ekonomikoari: bigarren hiruhilekoko datuen arabera, hiruhileko batetik besterako ekonomiaren hazkundera $-\% 16,4$ jaitsi da EAEn eta $-\% 18,5$ Espainian (Eustat eta EIN-aurrerapena).

Agertoki honetan, EAEko familiek jarduera ekonomikoaren suspertzearen gainean duten igurikimena oso ezkorra da (-45). Eta, gainera, bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean haien kezkek gora egin du eta igurikimena okertu egin da (-13 puntu).

EAEko familiek ekonomia orokorraren gainean duten igurikimena gero eta ezkorragoa da, lehen hiru hiruhilekoetako batez besteko balioek erakusten dutenaren arabera. Hauek dira 2018ko, 2019ko eta 2020ko datuak: 3, -1 eta -28 , hurrenez hurren.




5 | enpleguaren gaineko igurikimenak are gehiago egin du okerrera eta behea jo du

EAEko familiek langabeziaren bilakaeraren gainean duten igurikimenak behea jo du (-58), eta asko okertu da (-14 puntu) bigarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Datozen 12 hilabeteetan langabeziak gora egingo duela –asko (% 49) edo gutxi (% 29)– uste dute hamar pertsonatik zazpik, eta hamarretik hiruk baino ez dute uste langabezia jaitsi egingo dela edo orain bezala jarraituko duela; uste horiek eragiten dute ezkortasuna. Hau da, gehienek ez dute uste egoerak hobera egingo duenik. Aitzitik, urtebete barru langabezia maila egungoa baino altuagoa izango dela uste dute.

Igurikimena halakoa izatearen arrazoa EAEko langabeziaren hazkundera izan da –beste faktore batzuen artean–; otsailean baino 29.211 langabetu gehiago zeuden abuztuan.




6 | etxeko ekonomiaren gaineko igurikimena gutxiago okertu da

Datozen hamabi hilabeteetarako etxeko ekonomiaren gaineko igurikimena (-15) hirugarren hiru hilabeteetarako antzeko mailan (-13) mantendu dute EAEko familiak. Aipatzekoa da, balio negatiboa izan arren, ez dela ekonomia orokorraren (-45) edo langabeziaren (-58) gainekoa bezain ezkorra.

EAEko familien pertzepzioa ezkorragoa da ingurunearen bilakaerari dagokionez (ekonomia orokorra edo enplegua, edo biak), haien egoera pertsonal-familiarrari dagokionez baino (errentak edo enplegua). Hala, familien bi herenek berdin (edo hobeto) jarraituko dutela uste dute, eta heren batek apur bat (% 22) edo askoz (% 8) okerrago egongo dela uste du.

Kontuan izatekoa: pertsonak zuzenean ezagutzen dute "haien familiako ekonomia", baina hedatzen diren albisteetatik abiatuta eraikitzen dituzte ingurunearen ezagutza eta bilakaera .




7 | familiako aurrezki-igurikimena mantendu egin da

Datozen hamabi hilabeteetan zenbat aurrezteko gaitasuna izango dutela uste duten adierazten du familien aurrezki-igurikimena, dagoeneko aurreztutakoarekin alderatuta (azken hamabi hilabeteetan). Hirugarren hiruhilekoko emaitzek aurrezki-igurikimena mantendu egin dela erakusten dute (-4), eta balio negatiboa izan arren, oso apala eta/edo ia neutroa da.

Balorazio horrek familia aurreztaileen¹ eta zuhurren² osaera laburbiltzen du: familien erdiek seguru (% 16) edo segur aski (% 35) aurreztu egingo dutela uste dute; beste erdiek, aldiz, ez dutela aurreztuko (% 23) edo segur aski ez dutela aurreztuko (% 26) uste dute.

Azken finean, ziurgabetasun-agertoki batean egonik, haien aurrezki-egoera mantentzen edo indartzen jarraituko dute familiek.



8 “kontrolik eza”-ren pertzepzioak hondoratu egin du igurikimena

2020ko hirugarren hiruhilekoak indartu egin du EAEko familien ezkortasuna: udako hilabeteetan pandemiak izandako bilakaerak ziurgabetasun handia eragin du udazkenean eta neguan gertatuko denaren gainean.

Ekonomia orokorraren (-45) eta enpleguaren (-58) igurikimenak ezkorrak dira eta okerrera egin dute, datozen hamabi hilabeteetako egoera egungoa baino okerragoa izango dela uste duen kontsumitzaile kopuruak gora egin baitu.

Etxeko ekonomiaren (-15) edo aurrezpen-gaitasunaren (-4) gaineko igurikimenak ez dira ekonomia orokorrari edo langabeziari dagozkienak bezain ezkorrak, eta mantendu egin dira bigarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Laburbilduz: jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren gainbehera larriagotzearen eta denboran luzatzearen beldur dira familiak, covid-19aren krisiaren eta sortutako pandemiaren gaineko kontrol-faltaren ondorioz (kutsatze gehiago, konfinamendu-neurri gehiago, etab.).


Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	<u>2017</u>	<u>2018</u>	<u>2019</u>	<u>IVH-19</u>	<u>IH-20</u>	<u>IIH-20</u>	<u>IIIH-20</u>	<u>Aldea</u>	
Familien konfiantza	1	1	-2	-10	-1	-24	-30	-6	▼
Ekonomia orokorra	6	3	-6	-17	-7	-32	-45	-13	▼
Etxeko ekonomia	-5	-4	-2	-7	-1	-13	-15	-2	▶
Langabeziaren bilakaera	12	10	-4	-22	-4	-44	-58	-14	▼
Aurrezteko gaitasuna	-10	-5	2	6	7	-6	-4	+2	▶



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- EAEko familietan behera egin du prezioen hazkunde-igurikimenak
- negatiboa izan arren, erosketa-unearen balorazioa hobetu egin da
- "erosketa handiak" egiteko igurikimenak okerrera egin du
- etxebizitza edo autoa erosteko oso asmo baxua
- kontsumoa eta inbertsioa geldotu egin dira ziurgabetasunaren ondorioz




9 | EAEko familietan behera egin du prezioen hazkunde-igurikimenak

2020ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan, 10 kontsumitzailetik 3ren (% 33 eta % 36) ustez, prezioek azken hamabi hilabeteetako modu berdintsuan egingo dute gora; prezioak motelago igoko direla uste dutenen multzoa handitu egin da apur bat (% 18tik % 24ra, ehuneko 6 puntu gehiago), eta prezioak azkarrago igoko direla uste dutenen multzoa murriztu egin da (% 49tik % 40ra, ehuneko 9 puntu gutxiago). Bataren igoerak bestearen jaitsiera konpentsatu du.

Hala, prezioen bilakaeraren gaineko igurukimena nabarmen hobetu da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-30), oraindik negatiboa den arren (-15). Emaitza horien arabera, prezioen hazkundera motelagoa izango dela espero da, eta igurikimen hori baieztatu du KPIren bilakaerak, apirilaz geroztik urte arteko tasa negatiboa baitu.

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?² (pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez.

10 | negatiboa izan arren, erosketa-unearen balorazioa hobetu egin da


Oro har, nola baloratzen duzu gaur egungo unea, etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteari dagokionean?

Ziurgabetasun-egoerak jarraitu egiten du, eta “normaltasunerako itzulerak” ez du normaltasun-itxurarik. Ondorioz, familiak mesfidati daude eta erosketa-unea negatiboa (-10) dela pentsatzen jarraitzen dute, aurreko hiruhilekoan (-22) baino neurri txikiagoan bada ere.

Erosteke une ona dela uste duen kontsumitzaile kopuruak gora egin du apur bat (% 24, ehuneko 5 puntu gehiago), “berdin duela” uste dutenen kopurua egonkor mantendu da (% 42, ehuneko 3 puntu gehiago) eta une txarra dela uste dutenen kopuruak behera egin du (% 34, ehuneko 8 puntu gutxiago). Hortaz, balorazioa negatiboa den arren, apur bat hobetu da.

Erosteke unearen balioztapena¹

(pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez


11 "erosketa handiak" egiteko igurikimenak okerrera egin du

Nolakoak uste duzu izango direla etxeko erosketak eta gastuak, adibidez, altzariak, etxetresna elektrikoak, etxeko konponketak, etab., datozen 12 hilabeteetan¹?

Agerikoa da ziurgabetasun-agertoki honetan dauden EAEko kontsumitzaileen jarrera: berdin erosiko dutela uste dutenen kopuruak behera egin du (% 52, ehuneko 4 puntu gutxiago), zertxobait gutxiago edo askoz gutxiago erosiko dutela uste dutenen kopuruak gora egin du (% 39, ehuneko 5 puntu gehiago), eta gehiago erosiko duen familien ehunekoa mantendu egin da (% 9).

Hala, etxerako erosketa handiak egiteko igurikimenaren indizeak balio negatiboak ditu berriro ere (-17 eta -21, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan, hurrenez hurren), azken sei urteetako balioen antzekoak. Ez dago jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren joera aldatuko den zantzurik, eta horrek etxerako erosketa handiak egiteko erabakiak berriz pentsatzea eragin du, testuinguru argiago eta positiboago baten zain.

Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹




¹ Azken 12 hilabeteekin alderatuz.

12 | etxebizitza edo autoa erosteko oso asmo baxua

EAEko familien % 1ek baino gutxiagok eros lezake etxebizitza¹ bat datorren urtean; aurreko hiruhilekoetan erregistratutako ehunekoaren antzekoa da. Hortaz, etxebizitza bat erosteko asmoa duten familien bolumenak oso txikia izaten jarraitzen du.

— Etxebizitza erosteko asmoa


(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonek %a)



Ibilgailu bat erosteko asmoa dutela dioten familien¹ ehunekoak behera egin du apur bat (% 4,4, ehuneko 1,2 puntu gutxiago). Enplegua berreskuratzeak eta erosteko erraztasunak eskaintzeak (laguntza publikoak) eragin lezakete ibilgailu bat erosteko asmoak gora egitea.

— Ibilgailua erosteko asmoa

(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonek %a)



13 | kontsumoa eta inbertsioa geldotu egin dira ziurgabetasunaren ondorioz

2020ko hirugarren hiruhileko honetan, EAEko familiek...

- Datozen hilabeteetako prezioen hazkundera azken urtebetekoa baino txikiagoa izango dela erakusten dute, kontsumoa ahul baitago, eta jarduera ekonomikoa ez baita berreskuratu.
- Erosketa-unearen balorazioak negatiboa izaten jarraitzen du (-10), baina bigarren hiruhilekoan baino neurri txikiagoan egin du okerrera.
- Erosketa handiak egiteko igurikimenak okerrera egin du apur bat (-17tik -21ra), azken urteetako balioetatik urrundu da eta gastu hori murriztu egin dute berriro ere familiek.
- Etxebizitza edo autoa erosteko asmoa dutela adierazi duten familien kopurua oso balio txikietan mantendu da, eta urteko bigarren hiruhilekoan baino are gutxiago dira.

Azken finean, ziurgabetasunak eta zuhurtziak baldintzatzen dituzte familien erosketa- eta inbertsio-erabakiak, zeinak ia geldi baitauden, hobekuntzaren bat erakusten duen agertoki baten zain, momentuz halako zantzurik ez dagoen arren.

- .

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	2017	2018	2019	IV H-19	I H-20	II H-20	III H-20	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-17	-23	-20	-31	-17	-31	-16	15	▲
Erosteke unearen balorazioa	-2	-9	-5	-8	-8	-22	-10	12	▲
Erosketak egiteko igurikimenak	-7	-6	0	0	3	-17	-21	-4	▼


¹ 2014, ICC neurriaren hasiera momentua

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazleak



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2018	2019	IV H-19	I H-20	II H-20	III H-20	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	1	-2	-10	-1	-24	-30	▼
• Estatua*	-4	-6	-11	-10	-29	-27	▶
• EB*	-5	-6	-7	-7	-21	-16	▲
○ Frantzia*	-10	-9	-7	-8	-18	-12	▲
○ Alemania*	0	-2	-3	-3	-16	-9	▲
○ Erresuma Batua*	-7	-10	-9	-6	-23	-17	▲
Osagaiak: familien konfiantza. EAE							
• Ekonomia orokorra	3	-6	-17	-7	-32	-45	▼
• Etxeko ekonomia	-4	-2	-7	-1	-13	-15	▶
• Langabezia	10	-4	-22	-4	-44	-58	▼
• Aurrezkia	-5	2	6	7	-6	-4	▶
Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk. EAE							
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-23	-20	-31	-17	-31	-16	▲
• Erosteke unearen balioztapena	-9	-5	-8	-8	-22	-10	▲
• Erosketak egiteko igurikimena	-6	0	0	3	-17	-21	▼
Erosketa handiak. EAE.**							
• Etxebizitza	1,8	2,1	0,8	0,7	1,1	0,9	▶
• Autoa	5,3	6,4	6,8	5,6	5,6	4,4	▶

⇒ (± 2 puntuko aldea)

* I. hiruhileko datuak urtarilla-otsaila batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II | euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2018	2019	IV H-19	I H-20	II H-20	III H-20	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	1	-2	-10	-1	-24	-30	▼
Adin-mailak							
• 25 eta 39 urte bitartean	6	4	-3	6	-19	-21	▶
• 40 eta 54 urte bitartean	2	-2	-10	-1	-24	-31	▼
• 55 eta 64 urte bitartean	0	-6	-13	-6	-26	-36	▼
• 65 eta 74 urte bitartean	-7	-8	-12	-6	-28	-36	▼
Lan egoera							
• Landuna (soldatapekoa/ norberaren konturakoa)	6	1	-7	3	-22	-26	▼
• Langabea	-8	-8	-17	-9	-24	-40	▼
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-4	-6	-11	-5	-27	-35	▼
Familia-unitatearen hileko errenta							
• 1.700 €-rainokoa	-14	-13	-22	-12	-30	-42	▼
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	3	0	-6	1	-20	-28	▼
• 2.800 €- tik gorakoa	12	4	-2	7	-21	-19	▶

⇔ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazleak

	III H – 19	IV H – 19	I H – 20	II H – 20	III H – 20 _p	(azkena)
BPG	2,1	2,2	-3,2	-19,5	--	II hir.
Familien kontsumoa	1,6	1,5	-4,8	-20,3	--	II hir.
Afiliazioa	-0,6	1,8	-1,0	-2,5	-1,9	abuztua
Erregistratutako langabezia	0,6	0,1	5,8	17,0	26,2	abuztua
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	0,4	-0,2	-2,6	-10,5	--	II hir.
Etxebizitzen salerosketa	-10,1	-6,1	14,0	-29,9	--	II hir.
Ibilgailuen matrikulazioa	-16,6	8,8	-35,6	-24,0	58,4	uztaila-abuztua

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziatzko datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoia) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziatzko datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ Consumer Confidence Indicator, dokumentu honetan aipatzen dena familiaren konfiantzaren indize bezala, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie.
- Abuztuaren 24tik irailaren 4ra (2020ko III. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm